



TOLOSAKO
UDALA

1. DIRULAGUNTZA LERROA. TOLOSAKO UDALERRIAN ERALDAKETA SOZIALERAKO HEZIKETA ETA SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK ETA EKINTZAK GAUZATZEKO DIRULAGUNTZAK ELKARTEEI.

Sentsibilizazioa indartuko duten ekintzak lagunduko dira. Hor sartzen dira kontzientzia kritikoa sortzeko Tolosako gizarte osoari zuzendutako ekintzak. Desberdintasun ekonomiko, sozial, politiko, kultural eta generokoaren egiturazko arrazoiak agerian utziko dira, tokikoaren eta orokorraren arteko loturatik abiatuta.

Epe luzerako ekintza-proiektuak edo proiektu eta ekintza puntualak aurkeztu ahal izango dituzte elkarteek.

Dirulaguntzen zenbatekoak hauexek izango dira, beti ere, baloratutako puntuazioa betetzen bada:

- Epe luzerako: Gehienezko 3.000€ko muga eta gutxienezkoa 100€koa, kostuaren %80ra arte.
- Ekintza puntualak: Gehienezko 1.000€ko muga eta gutxienezkoa 100€koa, kostuaren %80ra arte.

NORK ESKA DEZAKE?

Gizarte arloan jarduten duten irabazi-asmorik gabeko edozein elkarte eta gobernu kanpoko elkarteek eskatu ahal izango dute. Baldintza hauek bete behar dituzte:

- Tolosako udalerrian izango dute egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkari eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistroan edota Tolosako izaera sozialeko elkarten erregistroan erregistratuta egongo dira.
- Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Tolosan ordezkari ofizialik ez izan.



TOLOSAKO
UDALA

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Proiektuaren inprimakia (I. Eredua).
- Erakunde eskatzailearen estatutuak.
- Zinpeko aitortpena (V. Eredua).
- Entitate eskatzailearen datuak eta IFZaren kopia.
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko betebeharrak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria (edo VI. Eredua).